Hernaniko Baratze Parkea



Gogoratu erabiltzaile guztiak **Sagastiola elkarteko kideak** garela, eta elkartearen helburua baratzeak era egokian funtzionatzea dela. Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da guztiok lantaldeetan parte hartzea. Elkartearekin harremanetan jartzeko: **sagastiola@gmail.com**.

GARRANTZITSUA:
baratzea zaintzeko denborarik ez baduzu, mesedez, jar zaitez harremanetan udalarekin, beste erabiltzaile bati baratzea edukitzeko aukera eman ahal izateko.



Hernaniko Udala

Eskuorri honen haziak:
Margarita, Petunia eta Myosotis spp dira.

Hernaniko Baratze Parkean erabiltzaile ugari gara, eta denon ardura da inguru hori txukun edukitzea; horregatik:

01 Gogora ezazu baratze **EKOLOGIKOAK** direla. Horretarako baimenduak diren produktuak soilik erabili ahalko ditugu.

02 Etxolan sartu aurretik oinetakoak garbitu.

03 Erremintak ondo zaindu, ondo garbitu etxolan sartu aurretik eta bere tokian txukun utzi.

04 Hondar organikoak lurrik gabe eta egoki zatikatuta utziko ditugu konpost gunean.

05 Partzelak garbi eduki eta mugak errespetatu.

06 Lursailean ezin dira erabili ez plastikozko ezta tratamendu edo jatorri kimikorik duen materialik, besteak beste, egur tratatua.

07 Esleipendunak lursaila baratze gisa soilik erabil dezake. Lortzen diren produktuak etxeko kontsumorako bakarrik izango dira.

08 Lursailen erabilera ezin dakioke inolaz ere beste inori laga edo besterendu.

09 Ezin da zuhaitz eta zuhaixkarik landatu, ezta fruta-arbolarik ere.

10 Inbasio-arazoak eman ditzaketen landareak kontrolpean eduki behar dira; hala nola, zolda-belarra eta menda.



Saia gaitezen guztion artean **Baratze Parke ekologiko, osasuntsu eta atsegina** izaten.